




# E.M.A eta Erasmus+



## COMBUSTIBLE

Le labo des intrepides

Leader

Biarritz (64) - Leon (40) - Tolosa (31)

Pertsonala: 10 - Ikasleak: 60

2005ean sortua - Irabazi asmorik gabeko erakundea

[www.combustible.fr](http://www.combustible.fr)

**Ekimen** kultural berritzaileen **laborategia** da Combustible, bi hamarkada baino gehiagoko esperientzia duena arte **eszenikoak**, sorkuntza artistikoa, sareko lana eta **bitartekaritza** kulturala eta digitala garatzen.

**Aholkularitza** eta prestakuntza jorratzen ditu, eta koprodukzioa eta **produkzioa**, kulturako eta sorkuntzako **ekintzaileentzat**, batez ere underground eta **D.I.Y** kulturen esparruan.

## ELEFANT

Irabazi asmorik gabeko eta erantzukizun mugatuko erakundea

Stavanger - Norvegia

Pertsonala: 10 - Kolaboratzaileak: 40 -

Ikasleak: 120

2013an sortua

[www.elefantworkspace.no](http://www.elefantworkspace.no)

Sorkuntza eta ekoizpen partekatuko lekua da Elefant, Stavangerreko bihotzean, baina batez ere kulturaren industriako profesionalen **komunitatea** da. 40 enpresa biltzen ditu, hainbat alorretan lan egiten dutenak.

Nazioko eta nazioarteko **sareak** jartzen ditu kideen esku, eta indar handia du kudeaketari buruzko **ezagutzan**, artisten **sustapenean**, kontserbazioaren eta **erakusketaren** arloan, bai eta **hezkuntza** artistikoan, **prestakuntzan**, garapenean eta **tutoretza** metodologietan ere kulturako eta sorkuntzako ekintzaileentzat.

# Excellent mentoring for artists



## DATAK

2022ko martxoaren 1etik  
2023ko urtarrilaren 31ra



## HELBURUAK

**Sustatzea** kulturako eta sorkuntzako ekintzaileek nazioarteko tutoretza sare bikain bat eskura izan dezaten.

**Indartzea** profesionalen konpetentziak espezializazio esparru horietan (arte eta kultura).

**Bultzatzea** onuradunek Erasmus+ programan parte hartu dezaten.

**Sortzea** nazioarteko sare bat, sorkuntzako eta kulturako ekimenak babesten dituzten erakundeena.

# Konpetentziak eta ikaskuntza

## Konpetentzia profesionalak

Informazioa kudeatzea - Prozedurak betetzen direla bermatzea - Nork bere ibilbide profesionala eraikitzea - Ezagutza eguneratzea

## Konpetentzia linguistikoak

Ulermena - Mintzamina - Idaztea

## Konpetentzia informatikoak


Informazioa kudeatzea - Komunikazioa - Edukiak sortzea - Segurtasuna - Arazoak konpontzea

## Antolakuntza konpetentziak

Ustekabekoaren aurrean erreakzionatzea - Jarduera planifikatzea eta antolatzea - Arrazoibide matematikoa hainbat egoerataraz egokitzea

## Komunikazio konpetentziak

Arau sozialak kontuan hartzea - Taldean lana egitea



## Ikaskuntzak

### Ikaskuntza formala

Hezkuntza sistemak. Ikasketa plan bati jarraitzen dio eta intenzionala da, azken batean ikaskuntza baita ikasleek egiten dituzten jarduera guztien helburua.

### Ikaskuntza ez formala

Ikaskuntza ingurune formaletatik kanpo, baina erakundeen esparruan.

### Ikaskuntza informala

Ikasleek ikaskuntza helbururik gabeko jardueretan parte hartzearen ondoriozkoa.

# Mugikortasun

## motak

JOB SHADOWING	2 – 60 egun
IKASTAROAK ETA PRESTAKUNTZA	2 – 30 egun
IRAKASKUNTZA EDO PRESTAKUNTZA ZEREGINAK	2 – 365 egun
BANAKAKO MUGIKORTASUNA	2 – 30 egun
TALDEKO MUGIKORTASUNA	2 – 30 egun

**PERTSONALA**

*Irakasleak,  
prestatzaileak,  
pertsonala,  
boluntarioak,  
kideak*

**IKASLEAK**

*Erakunde  
bidaltzailean  
helduentzako  
hezkuntza  
programetan  
izena emanak*



*Ikaskuntza beharrak eta helburuak betetzen lagunduko didan harrerako erakunde batean.*

# Hiru herrialde talde nire mugikortasunerako

01

Norvegia

Danimarka

Luxenburgo

Islandia

Suedia

Irlanda

Finlandia

Liechtenstein

02

Herbehereak

Austria

Belgika

Frantzia

Alemania

Italia

Espainia

Zipre

Grezia

Malta

Portugal

03

Eslovenia

Estonia

Letonia

Kroazia

Eslovakia

Txekia

Lituania

Turkia

Hungaria

Polonia

Ipar Mazedonia

Errumania

Bulgaria

Serbia

# Erasmus+ finantzaketa



<p><b>Bidaia</b></p> <p>Jatorritik jarduera lekura bitarteko distantzia, EBk onartutako distantzia kalkulagailua erabiliz.</p>	<p><b>Banakako laguntza</b></p> <p><b>Eguneko.</b> Dirulaguntza jarduera egin aurreko eta osteko bidaietarako. Gehienez <b>bi</b> bidaia egun garraio estandarrean, eta gehienez <b>sei</b> bidaia egun garraio berdean.</p>
<p><b>Ikastaroen kostuak</b></p> <p>Matrikularen kostuak ikastaroetan eta prestakuntzan.</p> <p>Gehienez <b>80 €</b>/parte-hartzaile/egun (gehienez 10 egun)</p>	<p><b>Hizkuntza laguntza</b></p> <p>OLS plataformarako sarbidea. <b>OLS</b>n ez dagoen hizkuntza/maila: <b>150 €</b>/parte-hartzaile</p>



## Inklusiorako laguntzak (desgaitasuna / Iraupen luzeko gaixotasuna)

Dirulaguntza kostuan % 100erako



## Aparteko kostuak

Bisa eta harekin lotutako gastuak, bizileku baimenak, txertoak, mediku ziurtagiriak: dirulaguntza kostuen % 100erako

Bidaia kostu handiak: dirulaguntza kostuen % 80rako





# Bidaia

Aireko distantzia erakunde bidaltzailearen eta jarduera lekuaren artean,  
Europako Batzordeak onartutako distantzia **kalkulagailua** erabiliz.

Distantzia	10-99 km	100 - 499 km	500 - 1.999 km	2.000 - 2.999 km	3.000 - 3.999 km	4.000 - 7.999 km	8.000 km edo +
Garraio estandarra	23 €	180 €	275 €	360 €	530 €	820 €	1.500 €
Garraio ekol. (autobusa, trena, auto partekatua)	X	210 €	320 €	410 €	610 €	X	X



# Banakako laguntza



Oinarrizko tarifak jarduera egun bakoitzeko + **bidaiak egunak** (bi bidaiak egun garraio estandarretarako, eta gehienez sei bidaiak egun garraio berderako).

Jardueraren 15. egunetik aurrera, oinarrizko tasaren % 70 izango da ordaindu beharreko tasa.

Parte hartzailea	Herrialde taldea 01	Herrialde taldea 02	Herrialde taldea 03
<b>Pertsonala</b> <i>Irakasleak, prestatzaileak, pertsonala, boluntarioak, kideak</i>	119 €	106 €	92 €
<b>Ikasleak</b> <i>Erakunde bidaltzailean helduentzako hezkuntza programetan izenak</i>	53 €	46 €	39 €



# Mugikortasunaren urratsak



# Bete beharreko dokumentuen zerrenda

## CV Europass

Europar Batasunak sortutako CV formatua.

## Aurreikusitako aurrekontua

Erraz betetzeko plantilla.

## Eskaera orria

Zu eta zure proiektua hobeto ezagutzeko.

## Ikaskuntzako akordioa

Mugikortasun kitaren parte da. Espero diren ikaskuntza emaitzak zehazten ditu. Bi erakundeekin sinatzekoa.

## Dirulaguntza hitzarmena

Mugikortasun kitaren parte da. Ordainketa baldintzak zehazten ditu. Erakunde bidaltzailearekin sinatzekoa.

### Mugikortasunaren aurretik



### Mugikortasunaren ondoren

## Ikaskuntzako akordioaren osagarria

Mugikortasun kitaren parte da. Ikaskuntzaren emaitzak egiaztatzen ditu. Erakunde hartzaileak sinatu beharrekoa.

## Bertaratze ziurtagiria

Erakunde hartzaileak sinatu beharrekoa, mugikortasunaren amaieran.

## Europass mugikortasun ziurtagiria

Erakunde bidaltzaileak eta harrerakoak sinatu beharrekoa. Mugikortasun konpetentzia hobetzeko ziurtagiria.

## Erasmus+ online txostena

Mugikortasun esperientziari buruzko galdera laburrak. Erasmus+ agentziak posta elektronikoz bidalitako esteka.

## Ebaluazio inprimakia

Mugikortasunaren, antolakuntzaren, konpetentzien eta abarren ebaluazioa.

Ready  
to travel  
?